**BIZKAIKO ENTZUTETSUEN GALERIA**
GALERIA DE CELEBRIDADES BIZKAINAS

# KIROLARIAK • ARTISTAK • IDAZLEAK
## *DEPORTISTAS • ARTISTAS • ESCRITORES*



# Erakusketa
# *Exposición*

2013ko azaroak 14 - 2014ko martxoak 16
*14 noviembre 2013 - 16 marzo 2014*

Bizkaiko Entzutetsuen Galeria pertsona ospetsu eta aipagarrien inguruan olioz egindako 239 erretratuz osatutako bilduma da. Pertsona horiek, hain zuzen ere, XIX. mendeko azken urteetako eta XX. mendearen lehen erdiko eguneroko bizitzan eta jarduera-esparru askotan nabarmendu ziren Bizkaian, eta, zehazki, Bilboko hiribilduan.

Galeria, Bilboko udalaren jabetzakoa eta museoan 1995etik gordailu gisa utzitakoa, 1950. urtearen inguruan sortu zen, José Antonio eta Luis de Lerchundi y Sirotich anaien proiektu pertsonal gisa; izan ere, lurraldeko museo ikonografiko moduko bat egiteko ideia izan zuten, etorkizuneko oroitzapenerako gordez bertako iraganik hurbilena, garai hartako gizon eta emakume nabarmenen irudien bitartez.

Galeria hainbat atal edo arlotan antolatzen zen: kalekumeak, kirolariak, gizon herrikoiak, artistak, idazleak, ospetsuak, ongileak, negozio-gizonak eta goi-gailurrak. 2012ko abenduan Museoak lehenengo erakusketa aurkeztu zuen, kalekumeen eta gizon herrikoien erretratuekin. Orain, kulturaren munduarekin lotutako pertsonaien txanda da, hau da, jatorrian kirolari, artista eta idazleentzat pentsatu ziren atalak jasoko dira. Guztira 69 erretratu dira, baina beste bost bazeuden (Luis Ignacio Arana, Pedro Mac Mahon, Enrique de Ibarra, Juan Álvarez eta Klin-Klon). Azken horiek ez daude museoan, seguru asko Tavira Galerian egon ziren bitartean saldu zirelako, baina eskertuko genuke erretratuok non dauden jakinez gero jakinaren gainean jarriko bazenigute.





Erakusketan agertzen diren pertsonek jarduera-eremu zabal bat ordezkatzen dute eta, guztiek batera, kulturak eta kirolak hiribilduan izan zuten loraldiaren ikuspegi osoa eskaintzen digute. Ibilbide horretan zehar ikusi ahalko ditugu mendizaleak, boxeolariak, pilotariak, toreatzaileak, esploratzaileak, margolariak, eskultoreak, musikariak, abeslariak, aktoreak, poetak, eleberri-idazleak, historialariak, kazetariak..., batzuk oso ospetsuak, beste batzuk eremu oso zehatzetan ezagunak, baina horiek guztiak Bilbon XIX. mendearen amaieran eta XX. mendearen hasieran bizi izan zen susperraldi kulturaren lekuko eta protagonistak, neurri handi batean gaur egungo euskal bizitza kulturalaren erreferente diren erakundeetatik, mugimenduetatik eta pentsamendu-korronteetatik datozenak.

Kirolaren eremuan, oso errotuta zeuden kirolen (esaterako, pilota eta traineruak) modernizazioa eta arauketa ikustean gain, kirol-praktika berriak agertuko dira, besteak beste futbola, txirrindularitza edo tenisa, neurri handi batean Bizkaiko Atletismo Federazioarekin, Bilboko Kirol Klubarekin (Club Deportivo de Bilbao), eta, noski, Athletic bezalako elkarteekin lotuta. Euskal pintura izenekoa eta euskal antzerki lirikoa ere ikusgai egongo dira, horien egile eta sortzaileetako batzuen bidez. Era berean, Bilboko Koral Elkarteak, Sociedad Filármonica elkarteak edo Orkestra Sinfonikoak ere tartean izango ditugu, beren sustatzaileen bitartez. Erakusketa honetan ikusi ahalko dira, halaber, udalerri eta lurraldeetako gai historikoei buruzko azterlan eta ikerketak (ikuspegi anitze-

tatik); euskal literatura eta hizkuntza suspertu, kontserbatu eta hedatzeko kezka, aldizkari eta egunkarien sorrera Bilbon; edo kultura, politika eta aisialdiko elkarteen jaiotza (Sociedad Bilbaina, El Sitio, Real Sporting Club, Ateneo, Club Marítimo del Abra…), ekimen horiek guztiak bultzatu zituzten pertsonen eskutik.

Erretratuen bidez, pertsona horien lana ezagutu ahalko dugu. Hala ere, ez dugu ahaztuko beren alderdi pertsonala, 65 gizon eta 4 emakume horien inguru familiar eta sozialari buruzko datu, zehaztasun eta anekdota batzuk ere aurkeztuko baitira.

Pertsona gehienak, gainera, gizartean aintzatetsi daude, kale, zentro edo erakunde desberdinetan ikus daitekeen bezala, geografia hurbil eta urrunean pertsona horien izena hartu baitute.

Beharbada harritu egingo zara pertsona batzuk ez aurkitzeaz, edota, alderantziz, ez aurkitzeaz. Museoa ez da izan hautaketaz arduratu dena. Galeria bere garaiko produktua eta bere garaiaren isla da. Eta, garai hartan, ideologiak merituak eta demerituak ezartzen zituen, eta horixe da, hain zuzen ere, hemen kontatu nahi dugun istorioan agertzen dena.







*La denominada Galería de Celebridades Bizkainas es una colección originalmente integrada por 239 retratos al óleo de personajes famosos y notables, destacados en muy diversos campos de la actividad y la vida cotidiana de la segunda mitad del siglo XIX y la primera mitad del siglo XX en Bizkaia y, muy particularmente, en la Villa de Bilbao.*

*La Galería, propiedad del Ayuntamiento de Bilbao y depositada en el Museo desde el año 1995, surge, en torno a 1950, como un proyecto personal de los hermanos José Antonio y Luis de Lerchundi y Sirotich, quienes concibieron la idea de crear una suerte de Museo iconográfico del territorio, preservando para la memoria futura su pasado más reciente, a través de la imagen de los hombres y mujeres descollantes en aquella época.*

*Esta colección de retratos estaba organizada en varios apartados o secciones: Tipos Callejeros, Deportistas, Hombres Populares, Artistas, Escritores, Personalidades, Benefactores, Hombres de Negocios y Altas Cumbres . En diciembre de 2012 el Museo presentó una primera exposición con los retratos de los tipos callejeros y los hombres populares. Corresponde ahora el turno a los personajes relacionados con el mundo de la cultura, esto es a los apartados originalmente dedicados a Deportistas, Artistas y Escritores. Son un total de 69 retratos, a los que habría que añadir otros 5 (los de Luis Ignacio Arana, Pedro Mac Mahon, Enrique de Ibarra, Juan Álvarez y Klin-Klon) que no se conservan en el Museo porque presumiblemente fueron vendidos durante el tiempo de su exposición en la Galería Tavira, pero sobre los que agradeceríamos cualquier noticia relativa a su paradero.*



*Los personajes retratados en la muestra son representativos de un variado abanico de campos de actividad y, en su conjunto, ofrecen una completa panorámica del florecimiento y despertar de la vida cultural y deportiva de la Villa. En su recorrido contemplaremos a montañeros, boxeadores, pelotaris, toreros, exploradores, pintores, escultores, músicos, cantantes, actores, poetas, novelistas, historiadores, periodistas…, algunos muy conocidos por el gran público, otros sólo por quienes están especializados en ámbitos muy concretos, pero todos ellos testigos y protagonistas de la efervescencia cultural que se vivió en Bilbao en los años finales del siglo XIX y principios del siglo XX, origen, en buena medida, de instituciones, movimientos y corrientes de pensamiento que hoy son referentes esenciales de la vida cultural vasca.*

*En el campo del deporte asistiremos, junto a la modernización y reglamentación de deportes de gran raigambre como la pelota o las traineras, al nacimiento de nuevas prácticas deportivas, como el futbol, el ciclismo o el tenis, en gran medida ligadas a sociedades del tipo de la Federación Atlética Vizcaina, el Club Deportivo de Bilbao y, por supuesto, el Athletic. La denominada pintura vasca y el teatro lírico vasco estarán también representados a través de algunos de sus artífices y creadores, al igual que lo estarán la Sociedad Coral, la Filarmónica o la Orquesta Sinfónica por medio de las figuras de sus promotores. El impulso de los estudios e investigaciones sobre temas históricos de carácter local y territorial (desde muy distintas perspectivas), la preocupación por la recuperación, conservación y difusión de la lengua y literatura vasca, la creación de periódicos y revistas en Bilbao o el nacimiento del asociacionismo cultural, político y recreativo (Sociedad Bilbaina, El Sitio, Real Sporting Club, Ateneo, Club Marítimo del Abra…)… serán aspectos que también tendrán cabida en la exposición al calor de las personalidades que los hicieron posibles.*

*A través de sus retratos, conoceremos sus realizaciones, su obra. No olvidaremos, sin embargo, su faceta personal, proporcionando también algunos datos, detalles y anécdotas acerca del entorno familiar y social de estos 65 hombres y 4 mujeres que, en su mayoría, gozan del reconocimiento debido, como lo acreditan las calles, centros e instituciones de variado carácter que, esparcidos por la geografía próxima y lejana, han sido bautizados con sus nombres.*

*Sorprenderán algunas ausencias y quizás también algunas presencias. La selección no es obra del Museo. La Galería es un producto y un reflejo de su tiempo, un tiempo en el que el componente ideológico condicionaba méritos y deméritos, y en tanto tal forma parte ello también del relato que desde aquí pretendemos contar.*











PARADOR


EUSKAL MUSEOA · BILBAO · MUSEO VASCO
Miguel de Unamuno Plaza, 4 - 48006 BILBAO
Telf. +34-94-415 54 23 - Fax +34-94-479 06 08
http://euskal-museoa.org - museoa@euskal-museoa.org




## Ikusleentzako Orduak

MUSEOA

Asteartetik Larunbatetara
Goizeko 11,00-etatik
arratsaldeko 19,00tararte

Igandea
Goizeko 11,00-etatik
arratsaldeko 14,00tararte

## Horarios de Visita

**MUSEO**

**De Martes a Sábado**
de 11,00 a 19,00 horas

**Domingo**
de 11,00 a 14,00 horas